

BIKANTASUN ETA JASANGARRITASUN POLITIKA

Correos Taldea, bere jarduera nagusiak posta eta pakete merkatuan burutzen dituzten enpresa talde gisa eratzen da, eta bertako bezeroek, gero eta gehiago, **balio erantsia duten zerbitzuak eskatzen dituzte**. Zerbitzu horiek, **Bikaintasunera eta Jasangarritasunera zuzenduriko ikuspegia** eskatzen dute. Helburu hori, Erakundearen Jokaera Kodean jasotzen diren eta gobernu egokia markatzen duten zintzotasun, integritate eta gardentasun printzipioei jarraituz bete ahal izateko, Taldeko Zuzendaritzak honako konpromiso hauek ezarri ditu:

- **BEZEROEKIN**; etengabeko hobekuntzaren bitartez eta zerbitzuetan eta produktuetan bikaintasuna etengabe bilatzeko prozesuetan **BERRIKUNTZA** ezarritz. Gero eta teknifikatuago dagoen Gizartera egokituriko eta haren eskakizunak eta itxaropenak beteko dituzten soluzio integratu berriak garatuz.
- **INTERES TALDEEKIN**, enpresa jarduera era eraginkorrean eta errentagarrian garatuz, ditugun baliabideen erabilera ahalik eta gehien optimizatzen ahaleginduz, eta, aldi berean enplegu egonkorra sortuz eta finkatuz.
- Konpainian lan egiten duten **PERTSONEKIN**, laneko osasunaren eta segurtasunaren alde lan eginez eta langile guztien etengabeko prestakuntza eta garapen pertsonala eta profesionala bultzatuz. Eta **GIZARTEAREKIN**, Gizartearen garapen sozialari eta kulturalari bultzada aktiboa emanez.
- **LAN EGITEN DUGUN INGURUNEA** ahaztu gabe, kutsadura **murrizteko** lan eginez, **CO₂ isurketei** dagokienez, batez ere. Oso garbi izan behar dugu gure jarduerak eta gure kontsumoak ingurumenean duen eragina, beti ere aplikatu beharreko legedia eta Correosek alor horretan hartu dituen konpromisoak betez.

Correos Taldeko presidentea



Alberto Lafuente

Madril, 2011 ko martxoaren 4a